

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Funtsezko elkarten bidez negozio eredu jakin batek funtzionatzeko behar dituen bazkideen eta hornitzaileen arteko sareak sortzen dira.



Aliantzak egiteko hainbat arrazoi egon daitezke hala nola: negozio eredu optimizatzeko, arriskuak murrizteko eta baliabideak eskuratzeko.

Gure negozio ereduak funtziona dezan sukaldatzeko produktuak, hala nola elikagaiak eta etxetresna elektrikoak, bideo kamara eta editatzeko ordenagailu bat behar ditugu. Horiek lortzeko hiru aliantza beharko ditugu:

- **Eroskirekin**, sukaldatzeko behar ditugun produktuak eta elikagaiak lortzeko gauzatuko dugu aliantza.



BOSCH

Invented for life

- **Boschekin** egingo dugun aliantza, berriz, etxetresna elektrikoak eta sukaldatzeko tresnak lortzeko izango da.

- Azkenik **Karlos Arguiñano** edo **Martín Berasategi** bezalako sukaldari famatuekin aliatuko gara gure aplikazioak ospea lor dezan. Sukaldari famatu hauek, noizbehinka gure errezetaren bat sukaldatuko dute eta bideoa eskuragarri egongo da web gunean eta aplikazioan.





Eroskiren bitartez eta Boschen bitartez, sukaldatzeko behar ditugun produktuak, elikagaiak, etxetresna elektrikoak eta sukaldatzeko beharrezkoak ditugun tresnak lortuko ditugunez, aliantza horiek baliabideak eskuratzeko asmoarekin egingo dltugula baieztatu dezakegu. Karlos Arguiñano edo Martín Berasategi bezalako sukaldari famatuekin, berriz, gure negozio-eredua optimizatzea lortuko dugu, bisitari gehiago erakartzea lortuko baitugu.